

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko irailaren 3a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Bortziriak • Baserri izenak eta haietarako bideak paneletan adieraziko dituzte aurrerantzean.

Markos Saez de Pipaon • «Jota berez ez da ezer, kalitate eskasekoa delako».



Kaikuak badu nork hustu

Nekazaritza eta abeltzaintza, ohiturak aldatu ahala, tamalez, artisautza lan ugari galtzen ari dira. Inork ez du jadanik urteetan gora doazen artisauen txandarik hartu nahi. Hala ere, bakarren batzuek jarraitzen diote aurrekoen sokari. Baztan-Bidasoaldean tradizio handiko kaikugileen lana ez da galduko; izan ere, Jorge Iribarren doneztebearra Patxiku Telletxea osabak erakutsitakoa ikasi, eta kaikugile ofizioan hasi da. Etorkizunak esanen du tamainan trebatu den.

• JOSU SANTESTEBAN

ESTI LARREA

Patxiku Telletxea osabak erakutsitakoa ikasi, eta kaikugile ofizioan hasi da.

Bortzirriak ●

Baserrietara ailegatzea, errazago

Panelak paratu dituzte auzo bideetan, Euskara Mankomunitateak bultzatuta

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak bultzatuta, auzo-sarreretan baserrien berri ematen duten panelak paratzen ari dira egunotan Bera, Etxalar eta Igantzin. Toponimia eta etxe izenen erabilera mantentzea eta berreskuratzea du helburu egitasmoak.



Baserri bideak euskaraz seinalizatzen dituzten panelak jartzen ari dira egunotan Bortzirietan.

JON ABRIL

A ZKEN EGUNOTAN BERA, Etxalar eta Igantziko bizilagunek ikusiko zituzten baserri-auzoetako bidegurutze eta sarreretan makina bat panel. Egurrezko euskarri batean, teilatu ttiki eta guzti, auzoen sarreran bideak, baserriak eta interesgarriak diren gauzak bildu dituzte. Bi helburu nagusi izan ditu egitasmo honek, batetik toponimia eta etxeen izenen erabilera mantentzea, eta neurri

handi batean berreskuratzea, galtzen ari den ohitura baita, diosku Patri Arburua Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikariak.

Bertze alde batetik, gure

herrietara etortzen diren zerbitzu ezberdinei, hala nola, mediku, suhiltzaile, gizarte laguntzaile, postari edo konponketa teknikariei bidea erakustea da.

Hiru udal horiek jarri dute diruaren %90a, eta bertze %10a Leader programatik lortu dute. Nafarroako Gobernuak gibelera bota du egitasmoa, eta ondorioz, ez da

aurreikusitako sarrerarik izan.

Lan nekezena Euskara Batzordeek


Bortzirietako Euskara Mankomunitateak egin du diseinua, kudeaketa eta horrek eragin dituen bertzelako lanak ere. Hala ere, hiru herrietako Euskara Batzordeek egindako lana goraiatu du Arburuak: baserrien izenen bilketa lana, informazioa, diseinua, argazkien bilketa... guztia euskara batzordeetatik egin da. Izugarriko lana eragin du.

Toponimiak zenbait arazo sortu dituela nabarmendu du Arburuak. Zenbait etxeri bertze modu batez deitzen zaie egun, edota jatorrizko izenetik aldaketa dexente jasandute. Horietan guztietan Nafarroako Gobernuak egindako toponimia lanak hartu dira oinarri, nahiz eta zenbaitetan alde handia izan panelen agertzen denaren eta karrikan erabiltzen denaren artean. Ezberdintasun hori egon arren, Nafarroako Gobernuaren bilketa lana hartu dute oinarri, dokumentazio handia erabili izan delako lan hori burutzeko.

→ Jon Abril

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Abebe Bikila gogoan

K ilometro mordoak eginak dituzte dagoeneko asfalto gainetik. Pare bat egun edo, dena ongi joan bazaie noski, behar izan dituzte haien jaioterriatik Parisko auzunetara itzultzeko. Orain, autoestratako atsedengunean naguela, horietako batzuk dauzkate alboko mahai batean. Otamen bat hartzen ari dira, nik egiten dudana bezalaxe. Agian, Hicham El Gerrouj jaiotzen den herri beretik datozke, eta mintzo dira hark egindako balentriaz, gainerako korrikalarien aurretik, edo haien gainetik hobeto esanda, azkarrena izateaz gain, Hicham-ek atleta soil bat baino gehiago artista bat ere badela erakutsi baitu udako bero zapalen 1.500 metroetako hegaldian.

Haratago joz, beste afrikar batzuk jardun bere-

an ari dira, zera da, indarrak hartzen. Nondik datozten edo norantza doazen ez naiz gauza esateko: akaso ez ote dira joandako sanferminetan tabernaz taberna lepokoak saltzen ibili ziren beltz haientzek?! Baliteke. Hauek ere, dena dela, aurrekoak bezalaxe, beren poza disimulatu ezinik dabilta, zoriona ezagutu baitute beren herkide Gebrsela-sierekin batera 10.000 metroetako lasterketan lehenengoak izateagatik.

Baina ez!, barka!, oker nabil, ez da horrela, kantari ari direnak (boza gehiegi altxatu gabe, badaezpada) ez dira Etiopiarrek, Kenyarrak baizik, eta itxura guztien arabera, biziki ari dira ospatzen Koskeik eta Kipketerrek zuri anglosaxoiek asmatutako 3.000 metroetako lasterketan lortutako garai-

pena; garaipen itzela, izan ere, lasterketaren ibilbidea —zitalkeriaren historiak aski ongi erakusten duenez— hesiz eta oztopoz beterik pairatu behar izan dute eta.

Ez dut ikusten, hala ere, EEBBetako jenderik aldamenen. Seguru nago, hala ere, albokoek pozarren hartu dituzte Johnstonek, Greenek eta Marion Jonesek, azaleko neba-arrebek, tarte motzetan eskuratutako urre, zilar eta brontzezko dominak eta hautsitako munduko errekorrak.


Amaitu dira otamenak, finitu da atsedena. Maroko, Etiopia eta Kenyako ibiltariek beren fardelak hartuz, asfaltera jo dute berriro. Bakoitzak badu bere lasterketa, eta lasterketa gogorretan haiek dira lehenak, haien zati da zurdunen urrea.

Larraun •

'Rriskitin'-en ondorengoa, prestaketa lanetan

Abesti zaharrak bildu zituen diskoaren lekukoa hartuko du aldizkari batek

Rriskitin diskorako abesti zaharrak biltzen hasi zirenean, Aralar Udal Musika Eskolakoek ikusi zuten bazela non aukeratu. Errepertorio zabal hori aldizkari monografiko batean biltzea da oraingo asmoa.



Aralar Musika Eskolako kideek abesti zaharren aldizkari monografiko bat argitaratuko dute.

• MIKEL SAIZ

EGUN HAUETAN EGINGO DU urtebete Aralar Udal Musika Eskolak bere haurtxoa aurkeztu zuela. *Rriskitin* izena jarri zioten disko hari. Soinu bizi eta eräkargarrikoa omen zen izena, eta horrelakoak ziren, nonbait, bertan biltzen ziren abestiak ere. Baina disko horretatik kanpo beste hainbat kantu geratu ziren. Aralar Udal Musika Eskolako zuzendari Jose Jabier Irigoienek aitortzen duenez, "abestiak biltzen hasi ginenean, ez genuen espero hainbeste topatuko genituenik". Au-

keraketa egiteko genero mota desberdinen irizpidea erabili zuten. Bidean geratutako beste abesti horiei irtenbide bila hasi ziren orduan.

Euskal Herriko Txistulari Elkartearen eskutik iritsi zitzaizen konponbidea. Elkarte honek urtean zehar *Txistulari* izeneko aldizkari bat argitaratu ohi du, eta aldizkari horren zerbaki bat Larraunaldeko musikaren monografiko bihurtzeko aukera eskaini zien Aralar koei. Proposamena

aintzat hartu, eta onartu ere onartu zuten, nahiz eta jakin lan horrek, berriro ere, ahalegin handia eskatzen zuela. "Badakigu lan handia izango dela, baina gogoz eginez gero, ez da hainbeste kostatzen. Gainera, badakigu gero jendearen harrera ona izango dela, *Rriskitin* ere oso ongi hartu baitzuen jendeak", dio Irigoienek.

Orain, jendearen inplikazioa behar dute monografiko hori kaleratu ahal izateko.

Jendearen eskutik, edo ahotik hobe esan, jasoko dutelako beharrezko materiala. "Larraun aldean aspaldidanik ezagutu diren musika, dantza eta ahotsak bildu nahi ditugu, baina hori bai, jatorria hemen dutenak behar dute izan", dio Irigoienek. Hala ere, musika eskolako zuzendariak ez du uste zailtasun handiegirik izango dutenik. "Dagoeneko hasiak gara jende helduarekin kontaktuak izaten, eta bat-batean akaso ez, baina elkarrizketak aurrera egin ahal, berehala gogoratzen dituzte. Esaterako, aipagarria da apaizen papera, hauek gogoran izaten baitituzte, eta ez elizakoak bakarrik".

Behin aldizkaria argitaratuta, *Rriskitin*-ekin egin zuten modura, jaialdi erraldoi bat antolatzeko asmoa du Aralar Udal Musika Eskolak. Horrelako ekimenak alaitasunez ospatu behar omen dira, ospatzeko modukoa omen da eta; izan ere, denboraren poderioz hautsez estalitako altxorak ezkutuko gordelekutik ateratzea merezi omen du.

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Gutunontzietan zuhaitzik ez

Burlatako **Axular** elkartearen aldizkariaren udako aleak ingurugiroaz arduratzeko gomendioa egin du. Postontzietan sartzen duten propaganda kopuru altua salatu du artikuluak, zuhaitz erdi bat sartzen baitute urtero postontzi bakoitzean.

Hipermerkatuetako eskaintzak, aseguru etxeen informazioa, pizza edo txinatar jatetxeen publizitatea, Mediterraneo aldean apartamentu bat erosteko aukera paregabea eta modu horretako informazioa eskaintzen duten zenbait eskupaper heltzen dira egunero postontzietara. Hala ere, paper multzo horiek leku berera bidaltzen dituzte beti, zakarontzira.

Eta eskatu gabeko propaganda hori guz-

tia egiteko behar den paper eta egur kantitate horren handia izanik, Eguzki talde ekologista kezkatuak dabil oso. **Axular** aldizkariaren arabera. Horregatik, bi proposamen egin ditu arazoari aurre egin ahal izateko. Batetik, paper birziklatua edo ekologikoa erabiltzeko eskatu dute, eta bestetik, postontzietan pilatzen diren paper multzoen aurkako ekimenak bultzatu dituzte.

Ingurugiroari egiten ari zaion kaltea ahal den heinean murrizteko neurriak har ditzatela eskatu eta proposamen zehatza aurkeztu dute. **Axular**-en arabera, Burlatako Udalak urte hasieran jaso zuen Eguzkiaren proposamena, baina oraindik ez du gaiaren inguruan deus esan. Proposame-

nak zera zioen: propagandarik nahi ez dutela esanez Eguzki eta Iratxe taldeek banatzen dituzten pegatinak bana zezaten, publizitaterik jaso nahi ez dutenek bere postontzian jar dezaten. Halaber, postontzietan pegatina paratu dituzten borondatea errespetatu ezean, banaketa enpresari isuna jartzeko eskatu dio Udalari.

Udalak proposamenari erantzun ez badio ere, ekimenarekin aurrera egiteko deia egin du **Axular**rek. Eguzki edo Iratxe elkartearen egoitzetan pegatina lortu eta postontzian jarri, eta propaganda jasoz gero udaltzainei jakinarazi, Auzitegi Gorenak onartu duenez postontziak norberaren intimitatearen zati baitira.



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Yonkiak

Esnatu eta mesanotxean beti gorderik dudana aipu bat sartzen dut besotik. Gaur ere Valle Inclanena izan da: "idazleek baraua dute". Mmmm. Ona. Gero San Frantzisko plazara joan naiz gainontzeko yonkiekin. Ni bezala artikulu edo zutabe egileak dira guztiak. Gaur ez zegoen aipuen-gamelurik eta hortaz pastilla txiki batzuekin konformatu behar izan dut. Hartu ditut bada gaurko gai buruzko pastillatxo batzuk "euskara unibertsitatean", "udazkenari begira" eta "Lizarako apustua irailerako". Hiru horiekin hiru artikulu idatzi ditut. Bainan ez naiz oso gustura gelditu. Nik zitak behar ditut redios! Aipuak! Sindromeak jota nago! Emaldazue aipu duin bat artikuluaren aipatzeko! Krixto! begiratu haiek! Gure artean hondatuena dira. Plazaren izkinean biltzen dira ahoa Murphyren Legeei atxikia, tetrabrikan! Iraganen izan zuten duintasuna erabat galdurik, Lege nazkarri horiek litroka edaten dituzte eta beraien testuetan larriki ixurtzen! Arrg! Beste batzuek, inondik inora hobeagoak, *Muy interesante* aldizkarian "aipu aipagarriak" ezkutuan irakurriz beraien sindromea asetzen dute eta gero kaletik gora gaitzen dira hiritar arruntak bailliran, zeregin arruntetan murgildurik. Gure arteko gaixo batzuek beraien dosiak irabazteko asmoz, tratu txikiak luzatzen dizkigute, eta horrela ez da harrizketa ikustea nola batzuek pelikula ezagunen tituluekin trafikatzeko: "ideia bat emango dizut adiskide, aipu baten truke" —esaten dizute, eta gero— "zera idatz ezazu Osasuna taldearen partiduari buruz, eta tituluan "Gol arteko egunak" jarri edo horrelako zer edo zer...". Jokamolde hauek tamalgarriak izanik ere gero eta gehiago ikusten dira plazan. Dena den, larriena, benetan nazkagarriena, gure drogen kalitate ezan datza. Edozein gauzarekin nahasten dituzte. Esate baterako: hitz-joko bortxatuekin edo/eta atso-titz txepelekin. Azkenean gorputzean eta zutabeetan zer sartzen ari garen ezin jakin gabiltza, eta askotan, askotan, ez gara ezta kolokatzen ere! Eta nire galdera da... normala al da ehun eta hogeitabost pezeta (6 libera) hitz-joko eta atso-titz, pelikula famatuen tituluen remix-ak eta Murphyren Legeen aipuak gorputzean sartzeko? Merezki al du? ●

Nolako egurra, halako ezpala

Jorge Iribarren kaikugileak Patxi Larretxea osabak irakatsitakoak ongi aski ikasi eta haren lekukoa hartuko du noizbait

Tamalez, artisaun lan ugari galtzen ari dira, inork ez duelako jadanik urteetan aurrera doazenen lekukorik hartzen. Hala ere, Baztan-Bidasoa aldean tradizio handiko kaikugileen lana ez da galduko, Jorge Iribarren doneztebearra Patxiku Larretxea amaren osabak erakutsitakoa ikasi eta kaikugile ofizioan hasia baita. Etorkizunak esanen du lekukoa aurrekoaren tamainan trebatu den behar.

ESNEA JEZTEKO EDOTA GAZTA, GAZTANBERA edo gazura egiteko baserritarrek erabilitako kaikua eta harekin batera esneki horiek egiteko prozesuan erabilitako ontziak eskuz eta egurrez egiteko ohitura aspaldikoa da Baztan eta Bidasoaldean. Behiak edo ardiak jezteko, esnea egosteko eta gaztanbera jateko erabiltzen zen kaikuaz gain, badira beste ontzi batzuk ere, hala nola abatza: esnea egosteko edo gazta egiteko erabilia; idazkia: esnari zaborrak eta zikinkeriak kentzeko balio duena; malatza: esnea, gaztanbera edo gazta nahasteko koi-lara modukoa; zimitza: gaztari itxura emateko moldea, eta oporra: esnea taloarekin edo artopilarekin gosalteko edo edateko erabiltzen zen ontzia.

Inguru horretan kaikuak eta bestelakoak askok egin dituzten arren, Santiago Bengoetxea erratzuarra eta Patxiku Larretxea Be-rau sunbildarja dira horretan iaioenak. Larretxeak 79 urte dituen arren, ez du lanik falta. Oteizenean bizi da, 1927an egindako hiru solairuko etxe ederrean, Sunbilla herrian, Malerrekan. Kaikuak egitea ofizio izana du, eta, orain, afizio ere. Jaiotzez aranaz-tarra da. Lana familian ikusitakotik ikasi zuen, aurreko belaunaldiek horretan aritzen baitziren. «Aitona eta aita zirenak egiten zutena egiten hasi nintzen ahal nuena egiten. Aitonak, Lorenzo Beaurrek, esaten zuen hamalau urte arte, bera bizi bazen, ikasiko nuela kaiku egiten».

Patxiku Larretxea:

«Aitona eta aita zirenak egiten zutena egiten hasi nintzen. Zortzi urte nituenerako hasi nintzen ahal nuena egiten. Aitonak, Lorenzo Beaurrek, esaten zuen hamalau urte arte, bera bizi bazen, ikasiko nuela kaiku egiten»

«Enkarguz egiten ditut kaikuak, baina denak ezin. Ez dira 30 urte. Asko aritua naiz, baina egin gabe egoteko ere ez dut balio. Beti ari behar, orain gehiago kostatzen bazait ere»

jarri zuten kaiku egiten. Abatza baino estua-goa izaki, lan gehiago ematen zion. Berak ez zuela aterako pentsatu bazuen ere, aitak forma eman eta Patxikuk aise hustu omen zuen urki egurraren barrualdea. «Horretan bizi izan naiz denbora handian, kaikugile, altzariak egiten edo zaharberitzen», dio. Lehenik Ameriketara zazpi urte eta erdi iragan zituen, artzain. Gero, 50 urte zituelarik, Leitzako paper fabrikara sartu zen, eta han hamaika urte egin ondoren, erretiroa hartu zuen. Baina kaikuak ez ezik, altzariak ere egin izan ditu franko, egurrekin aritzea, ofizio izateaz gain, oso gustuko duen afizioa ere bai baitu. «Gure etxean gutxi dira muelleak besteek eginak, gehienak neronek eginak dira. Norberak eginez gero, beti sobratu baita eta, gero, onak ere bai», dio pozik. Ge-rezionarioaren eta gaztainondoaren egurrarekin berak sortuak dira etxean dituen altzariak. Jangelako altzari landuaren gaztain egurra urte batez edukitu zuen etxean, eta bakarrik hastea beldurra ematen bazion ere, 1949an hasi eta bukatu egin zuen. Kaikugileak ongi ezagutzen ditu inguruko egurrak eta bakoitzak zertarako balio duen. «Lan egiteko ona da gaztaina. Haritza ere ona da, esposatutako kuartoa horrekin egin nuen, eta handik 30 urtera eguraldiaren aldaketa bat gauzean edeki ezagutzen zen. Tak, tak... mugitzen zen; gaztainak ez du hori egiten. Gozoagoa da, eta beste hura, nire gisa, kaskarragoa», dio txantxetan.

Oraindik erabiltzen den ontzia

Patxikurentzako urteak aurrera badoaz ere, oraindik sasoian dago. Etxeko baratza landu bidenabar, eginahal baino enkargu gehiago izaten ditu. «Enkarguz egiten ditut kaikuak, baina denak ezin. Ez dira 30 urte. Asko aritua naiz, baina egin gabe egoteko ere ez dut balio. Beti ari behar, orain gehiago kostatzen bazait ere», azaldu du.

Kaikuak egiteko urki arbolak bolada ederrean berak moztzen zituen, baina orain eskatu egiten ditu. Garai batean oso ohikoak ziren ontziok orain ere erabiltzen omen dira Malerreka eta Baztan aldean. Larretxeak kaiku galantak egin izan ditu; 22 litro esne kabitzen zirenak hustu izan ditu. Oteizeneko beheko solairuan duen lantokian azken ukitu emateko prest dauden kaiku ilara luzea dauka Patxikuk. Gehienak enkarguak dira. Aldeko bi txikiak Bartzelonara eramane beharrik omen dira. Beste bat Aranatzera, atauxi zenaren andrearen-



Jorge Iribarrenek amaren osabaren lekukoa hartuko du. ● JOSU SANTESTEBAN



Gaztanbera egiteko erabiltzen den kaikuak beste ontzi bat da. ● JOSU SANTESTEBAN

presaka etortzen dira eta ahal ditudanak egiten ditut, denen gustuak ezin egin izaten ditudan arren», gaineratu du.

Jorge Iribarren, maisuaren bidetik

Jorge Iribarren doneztebearrak 24 urte besterik ez ditu, eta duela lau urte hasi zen kaikugile behar. Amaren osaba Patxiku

Larretxearekin alderatuz, kaikuak egiten berandu hasi bazen ere, oso trebea da horretan, eta azken ukituak ere tentuz bukatzen ditu. Txikitatik erreparatzen omen zituen inguruko kaikugileen lanak. Ez zuen sekula pentsatu horretan ariko zenik, baina Patxikurekin lanean hasi, eta gustatu. Hasi berria bada ere, arrakasta lortzen hasia da, Donezteben duen jatetxean abuztuan jarri-

Baserritik kalera

Nekazaritza guneetan beharrezko lanabesak aldatuak, eta antzinatik datozenek ez dute orain funtzio erretiroa hartutakoak dira edo nahiko helduak dira, eta ez dute atzetik inor hasi zaienik, eta hori dela eta eginen da». Adibide gisa Agustin Antxor-doki lan saskigilea jarri du. Haren lana desagertu-ko da, inguruan beste lau-bost ofizio ere galduko dira, diotekati.

Donezteben irudikoz, artisauren lana askotan ez da galduta. «Askok ezjakinak dira. Urkia bota duzun pieza bukatu arteko orduak kontaezina dira.

Artisautza ez da errentagarria. Jendeak ez du ikasi nahi. Dirua azkar irabazi nahi du, eta ez asko kostatzen den ofizio bat ikasi gero dirurik ez ikusteko», gaineratu du.

Dena dela, lan zailak ez du izutzen, eta kaikugile lanetan jarraitzeko asmoa du. Horretaz bizitzea zaila den arren, gustatuko litzaiokeela esan du. «Erakusketak egin ditzakezu han eta hemen. Datorren denboraldira-ko erakutsi nahi nuke gaztarekin zein gaztanberarekin prozesu guztia nola egiten zen garai batean, eta nola egiten den egun». Arrakastatsua izan da bere jatetxean jarri duen erakusketa, eta hurrengo prestatzeko irri-kan dago. Heldu den urterako Elgorriagoako Kultur Etxea eskaini diote, eta tradizioarekin jarraitzeko asmoa besterik ez omen du. «Tradizioa errespetatu egin behar da, baina garai batean nola lan egiten zen eta gaur egun nola aritzen garen erakutsiz. Ez dut aldatu-ko aspalditik datorren egiteko modu bat, eta erakutsi didaten bezala egiten jarraituko dut. Kaikua, kaikua da, besterik ez», erantsi du.



tako erakusketako pieza guztiak saldu baititu. Dena dela, irakastun izan duenaren antzera, ez ditu kaikuak soilik egiten. Ardia jezteko behar izaten den kaikutik hasi eta esne hori gazta bihurtu arteko erreminta guztiak egiten ditu: kaikua, abatza, idazkia, malatza, zimitza eta oporra, alegia. Maisuak irakatsi bezala, urkiaren egurra erabiltzen du kaikuak egiteko, argiena delako eta ez duelako esnea txukatzen gaztanbera egiten dena. Iribarrenen ustez, kaikua da ontzietan egiteko zailena. Kiderrak kaikuaren erdian egon behar du eta urkia hustea ez da lan erraza, kiderra errespetatu behar delako. Iribarrenen iritziz, kaikuarekin batera abatzak du zailtasun gehien, bi kider dituelako, eta bata bestearen parean egon behar dutelako. Oporrak, idazkiak, zimitzak eta malatzak ez omen dute hainbesteko zailtasunik. Orduak behar ditu kaiku bat egiteko behar dutelako. «Kiderra arrailatu edo hautsi daiteke, eta bukaerari ere garrantzi handia ematen diot. Ongi lizatzen ditut. Pieza gutxi egiten ditut, baina itxurosoak», azaldu digu.

Udan ez, baina udazkenetik aitzina, udaberriaraino, egunero aritzen da horretan. Urkia berak aukeratzen du, baina landu behar diren beste hainbat egurren gisara, urkiak baditu mozteko bete beharreko baldintzak. Kaikuak egiteko, urkia ilgora dagoenean moztu behar da eta itsasbeherarekin. Aurreneko ebakia egiten zaionean ez du izerdirik bota behar, beraz, garai aproposena iraila eta urria omen dira. Ur asko isurtzen badu itsasgora dagoela adierazten du, eta mozteko itsasbehera iritsi arte itxoran behar da. Bi zuhaitz besterik ez ditu bota orain arte, eta ez ditu gehiago botako, horretan ez delako iaioa, eta ez duelako asmatzen. «Aurrerantzean baserritarrek inoan naiz, aukeratu, eta berak bota ditzala. Hori ere ikasi behar da, eta nik ez dakit. Urki ugari daude Malerreka. Leitzeta eta Goizuetan, eta gazte asko datoz. Beraz, material arazorik ez dut izanen», gaineratu du.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Gaizka Barandiaranen ekarpenaren gainean

lazkoan eta Arrasateko Udalak aitzinaturik, Josemari Velez de Mendizabal idazle aramaioarrak *Gaizka Barandiaran, bere bizitza eta lanak* 80 orrialdeko idazlan laburra bezain trinkoa argitara eman zuen; ezin esan lan hark atzeman oihartzuna ozena izan ez zenik. Bestalde, ordea, Barandiaran ez zaigu arrotz, eta berebiziko interesa dauka josulagunaren ekarpena, Xabierren eta Tuteran eman zituen urte luzeetan utzitakoarengatik



Gaizka Barandiaran Balandategi Oñatiko San Pedro auzunean jato zen 1916.eko martxoaren 3an. Gurasoak Ezkoriazakoak zituen, aita Bolibarkoa eta ama Apotzagakoa. Gazterik gazte, bi urterekin edo, Arrasateko Mentu baserrira aldatu ziren, eta geroxeago ere, aitak berak altxatu Marko-Etxeberrira. Sei urterekin udal eskolan sartu, eta 1928. ez geroz Durangon izan zen batxilergoa burutzeko xedez. Durangon ere josulaguna izateko erabakia hartu, eta hortaz, Belgikako Tournai hirira aldatu zen; txanda hartan joan ziren 16ren artean Estefania aita irakasle moduan eta Zaitegi ikaskide bazituen. Hauekin batera, Lizardiren eta Orixeren hainbat olerkiren frantses aldaerak itzulikatu zituen Parisko *Études* aldizkarirako. Zinitzak egin ostean, 1937. ean Marneffera joan zen filosofiaren ikastera, baina handik gutxira Espainiaratu behar izan zuen soldadutza egitera beharturik, azkenez, filosofiako ikasketei amaiera Oñan eman ziela 1941. ean. Xabierren bidali zuten orduan; hantxe, Magisteritza ikasteaz aparte, txistua jotzen ongi trebatu eta dantza taldea sortu zuen, bertan nafar folklorea biltzeko aukera aparta profittatu zuelarik, tartean Uztrotzeko Ttun-ttuna, *Roncal rñon de Vasconia* artikuluan azaleratu zuena. Xabierren

labur izan zen, bada, 1944. ean Oñara itzuli baitzen teologia ikasle. Apezteari 1947.eko uztailaren 30an heldu zion, Txina aldean Wuhuko gotzaia zen Zenon Aranbururen eskutik, eta urtebete Gandian eman ostean, Tuterara iritsi zen 1949. ean. Erriberan hamasei urte igarota, Innsbrucken izan zen labur, handik 1967. ean arraitzuli zenean, Donostian irakasle aritzeko 1992. ean jubilatu zen arte.



Egun ere, Donostiako San Ignazio ikastetxean bizi da. Durangon piztu zitzaion euskal dantzarako grina, eta hantxe, Iurretakoa zen Aldekoa eta Elgoibarkoa zen Azpiazu dantza-maisuek Dantzari-dantza eta Soka-dantza erakutsi zizkion. Gorago esan bezala, Xabierren dantza taldea sortu zuen, eta Oñan dantza ikertzaile moduan trebatu zen. Iruñeko Udalak 1953. ean antolatu Iruñia-Miarritze dantza jairako kapelaua Gaizka aukeratu zuen -ordurako Maxi Aranbururen laguna bagenuen-, eta 1956. ean International Folk Music Council izeneko elkartearen sartu zuten, euskal folkloreak mintzalari Stuttgarten aritu zela -hortaz, ez da harritzekoa Grove

Dictionary musika entziklopedia ezagunean berean euskal musikaz eta dantzaz izkiriatu izana-. Ugariak dira, bestalde, euskal dantzaz ondurik dituen hamaiaka artikulu jasotzen duten argitalpenak.

Tuteran zegoela jada Tournain itzultzen hasitako *Iliada* bukatu zuen osoz, argitaratzeko, ordea, arazo ugari izan zituen. Antonio Tovarregana jo zuen lehenbizi, giro falangistan ongi mugitzen baitzen, baina hark ez zion baimenik erdietsi; gero, Barne Ministeritzako Liburuaren Sailera jo zuen Madrilen, alta, eta espero zuenez, pentsaezina; azkenik, Nafar Aldundian zeuden Gortari Errea eta Caballero politikariek eman 8.000 pezetekin inprimaketaren gastuei aurre egin zien eta 1956. ean agertu zen Gasteizen bere lanik ezagunen bezain diskutituen dena, *Illasena* alegia. Aski agerian utzi zuen Velez de Mendizabalek bere liburuaren atarikoan nahiko gauza isildurik geratu zirela biografia-tuak hala eskaturik, bada, trapu zaharrak hobe etxean garbitzen badira inora atera gabe, alabaina Mitxelenarekin izaniko tira-biren berri emateari ez zeritzon oker, bere begikoz Errenteriakoak ezin baitzuen eraman Barandiaranek euskal kontuetan aurrea hartu izana. *Illasena* 1956. ean atera zenean Mitxelenak erreseina luzea eskeini zion ber urteko Egan aldizkarian.

etorri ahalean

Patziku Perurena

Senez Seneka

Luzio. Beti gustoko izan dudana izena. Eta ez dut Luzio izenekorik bat bakarrik ere ezagutu hezur haragitan. Halare, gizaki gozo eta arrazoiz motz ederreko irudikatu izandu ditut Luzio guziak. Honek, behar bada, Santa Luziaren eragin nahastuaren bat izan lezake tarteko, begietako argi eskasiak buruko indar-tzen duelako sineste zaharragatik edo... Baina bai: Luzio guziak patxadako eta neguko eguzki irudikatu izan ditut.

Goizuetan, Alotzartako Luzio Untxalo zenaren ateraldi zelebreak aditua naiz umetan, baita Karretoko Luzio Arozena lasai harenak ere. Gero Leitzan, Luzio Retegi "mañotar" bertsozale eta kontu kontari aparta omen zeneko hartaz. Atzenaldira berriz, gutxi goitibehiti orain bi mila urte Cordoban jaiotako Luzio haren ateraldiak leitzen ari nauzu.

Erroman hil omen zen, kasik bizi guzian politikan, filosofian eta idazten bertan aritu ondoren. Klaudiok Corcegara desterratu, Tiberiok senadore egin, Neronek ministro izendatu... Hamaika ikusia zen gure Luzio gizajoa. Atzenezan, politikariek ez dela politikan etsi, eta *Naturales Quaestiones* idaztera jarri zen arte.

Kristo zerutik jeitsi omen zenetik, lur doakabe honetan milagarren bikora goazela, deus ipintzekotan: "Senez Seneka" ipiniko nuke nik euskaldunon izpiritu politiko/filosofiko/animikoari neurriak hartzeko. Haren obra eder guzia, batez ere, esperientziaren bahean findutako gogoeta filosofikoak, ikusi nahiko nituzke euskara klasiko eder batean, eta gero proba egin. Zenbat euskaldun (nahinon gidari dabilzan txulo ikaslotzakoak, alegia) ote lirakeke kapaz gustoz leitzeko? Zenbat haren esanak hausnartu eta gozatzeko? Zenbat hausnartutako hori guzia beren bizimoduan ballatzeko kapable?... Puff, pentsatzea ere!

Inoizkoa baino libreagoa omen da bi mila urteko gizona. Ez dakit. Inoizkoa baino okupatuagoa eta gizatzartuagoa bai benpe. Oporrak, denbora libre... bere burua gobernatzen ez dakien horrentzako botika ez al dira? bere libertatea eraman ezin duen horrentzako lanordu estra galanki pagatuak? Zertarako du, izan ere, libertatea, bere burua gobernatzen ez dakienak? Bistan da: bi milako gizatar honi lana bera baino milatan jasangaitzago zaiola denbora libre.

Horregatik hitzegiten da, inoiz ez bezala entretenimenduaz. Honela dio nere Luzio zaharrak, jendaje libre superokupatu honetaz: "Deustan ezin liteke tajuz ari gizon okupatua, izpiritu distraituak ez baitu deus erabakiorrik bereganatzen, dena iraitzean bezala hartzen du, norbaitek bortxaz erakutsiko balio bezala. Guzien artetik, bere aldia gogoetarako ematen duena da gizon libre: bere bizia ongi gobernatzeaz gain, edozein aldi eder gehitzen baitio bere aldiari.

"Ez zaitetz gauza handi ugari dutenen espan bizi, edozein modutan ere, izana galdu bildurrak baino askoz libreago egiten baitu gizona ez izanak. Neurririk egokiena, probreza jo gabe haren hurbiletik segitzea da, gogoz eta arimaz suelto bizitzeko".

"Hagitzez hobe duzu, gizarteko usadio ergelak eta jendearen moztasunak lasaro hartzea, parrez edo negarrez presaka hastea baino. Zeure gaitzalditan, emaiouz oinazeari berez dagokion hutsa, eta ez larritu inguruko usuarioak agintzen dizuna erantsiz. Atera zeure burua, inguruak sortutako negarritasoz zuritik, eta indarberritu zeure gogoz eta borondatez".

Horra literaturaren eragin ederretan atseginena; nor bere burua erreskatatzeko balio izatearena. Bada ordea jendea, bost liburu eder leitu arren, horretako sekula gauza izanen ez dena.

Ziria

• Motxorrosolo •

Merkatariak

Hiriburuzagia hankaz gora. Era guztietako proiektuak, herritarren ilusioaren pizgarri. Marrakkiz zabaltzen den editoriala temati. Yanguaseko egoitzak zuzentzen du udala, orain arte pausatuta direnak horren argigarri. Erdi Aroan legez, Done Saturdiko merkataria nagusitu dira

Marcos Saez de Pipaon

☉ Akordeoilaria

«Jota berez ez da ezer, kalitate eskasekoa delako»

Navarrerias jota taldeko soinu jolea da Marcos Saez de Pipaon. Ustekabeen hasi zen taldean jotzen. Bera abesti berriak egiten eta daudenak moldatzen saiatzen bada ere, onartzen du jota zaharkitua dagoela, eta, batez ere, zaharrek dutela gustuko.

S EMEA IGERILEKURA JOATEKO zain duen bitartean mintzatu da Markos. Jota talde batean aritzen bada ere, jotak baino gehiago soinua jotzea duela maite antzematen zaio.

■ **Nola hasi zinen Navarrerias jota taldean jotzen?**

Ustekabeen hasi nintzen, duela hamabost urte. Deitu egin zidaten eta proposamena onartu egin nuen.

■ **Lehenagotik ere jotzen zenuen beste talderen batean?**

Lehen berbena talde batean jotzen nuen. Horretarako ikasi nuen Etxebe Akordeoi Eskolan; nire benetako irakaslea, baina, Carlos abizeneko bat izan zen, Puchint goitizenez ezaguna. Iruñeko Irurita Zinegotzia plazan eskola bat zuten Etxebe eta biak. Harekin ikasi nuen behar bezala jotzen.

■ **Gustuko duzu Navarrerias taldean jotzea?**

Ni ez naiz benetako joteroa. Jotak jotzeaz gain, Euskal Herriko beste kantu batzuk sartzen saiatzen naiz emanaldietan. Nire erronka zailena den arren, ahalik eta gehienak euskaraz izan daitezten saiatzen naiz, jendeak ohitura har dezan.

■ **Zer egiten du euskal hitz-tun batek jotaren mundu 'erdaldun eta zaharkituan'?**

Badakit non nagoen. Saiatzen naiz ahalik eta gehien nire lana taldearen bidez ateratzen, eta, aldi berean, haiek gutxinaka ohitzen dira jotak euskaraz entzuten, eta alda-

tzen da beraien ikuspegia. Entzule zaharrak aldatzea zailagoa da, baina zerbait mugitzen da. Taldean badago euskara sartzeko nahia. Ez zaie euskaraz kantatzea inporta Iruñerrian edo Iruñetik gora, baina Erriberan gure emanaldia aldatu egiten dugu. Hala ere, beti zerbait sartzen dugu euskaraz.

■ **Nafarroako gizartearen zati handi baten isla da jota?**

Garai batean beharbada bai. Haiek ez daude edozer entzuteko prest, baina zertxobait aldatzen ari dela uste dut.

■ **Dena dela, esan daiteke jotak harrera ona Iruñerrian eta Iruñetik behera bakarrik duela?**

Garai batean jota kantariak kantatzen zutena abesten da oraindik ere. Badira onak diren jota batzuk, baina gehienek ez daukate mamirik. Kalitate gutxikoak dira. Kalitatea izan dezake kantatzen ari denaren ahotsak, baina letrak eta musikak ez. Oso pobreak dira. Gaur egungo musikarekin alderatuz, jotak ez dauka deus egiterik, edo aurrerapausoak ematen ditu, edo akabo.

■ **Euskaraz abesteagatik izan duzue arazorik?**

Bai, baina jendea konbentzitu behar da. *Recuerdos* azken lanean sartu ditugu kantu batzuk euskaraz.

■ **Trikitixak sekulako arrakasta lortu du eta hainbat talde gaztek aurrerapauso handiak eman dituzte, baina jotak ez du jakin be-**

rritzen eta egungo gizartera egokitzen. Zein funtzio du egun?

Gaztaroen entzuten zutenei orain ere gauza bera entzutea gustatzen zaie, baina oso gazte gutxi dute gustuko jota. Jota bat da adreilurik gabeko etxea. Saiatzen naiz aldatzen, baina zaila da. Zerbait egin behar da egoera hori aldatzeko. Euskara sartuz eta Euskal Herriko errealitatea kontutan hartuz, saiatsen naiz zerbait aldatzen, gainerakoan ez duelako ezertarako balio. Jota berez ez da ezer, kalitate eskasekoa delako.

■ **Egiten da zerbait egoera hobetzeko?**


Nafarroako Gobernuak

«Lehenago herriko tabernetan kantatzen zen eta instrumenturik gabe. Gaur egungoek kantatzen dute entzun dutena. Ez dute ezer aldatzen, eta ez diote deus berririk gehitzen, bakarrik ahalik eta altuen kantatzen saiatzen dira»

fundazio bat egin zuen, baina txorakeria hutsa da hori. Jota antzinako kantua da eta oso motza. Lehenago herriko tabernetan kantatzen zen eta instrumenturik gabe. Gaur egungoek kantatzen dute entzun dutena. Ez dute ezer aldatzen, eta ez diote deus berririk gehitzen, bakarrik ahalik eta altuen kantatzen saiatzen dira.

■ **Zergatik?**

Beti jende berak kantatzen duelako, eta orain dela 60 urte abesten ziren letrak. Nirekin ibiltzen diren jotero zaharrenek ere, txikitik kantatzen zutena kantatzen dute egun.



JOXE LACALLE

Beraz, ez dute batere aurreratu. Ez dira ez doinuak ez letrak aldatu. Jota entzulea zaharra da.

■ **Zein da jotaren sehaska?**

Erriberako herrietatik ateratakoa da. Lizarrerrikoa naiz eta txikia nintzenez ez nuen apenas entzun.

■ **Dena den, maisurik izan du. Baleriano Ordoñez jotaren aita dela diote?**

Belaunaldiz belaunaldi erakusten den zerbait da. Baleriano Ordoñezi, jotaren aita bezala ezaguna denari, sari bat eman zitoten duela gutxi, jotaren alde egindako lanagatik, baina, nire ikuspuntutik, musikaz ez daki deus. Jotaren egintza egin izan du zerbait, baina folkloarengatik hutsaren hurrengoa.

■ **Nafarroatik kanpora ateratzen zarete?**

Askotan. Aurten Arabako Errioxako herri guztietan egon gara. Udan astero badugu norabaitera joateko konpromisoa. Maiz joaten gara Araba, Gipuzkoa edo Bizkaira.

■ **Jendeak zer modoz erantzuten du?**

Oso ondo. Herrialde horietan ere saiatzen gara euskal doinuak jotzen.

→ Irene Arrizurieta

soslaia

Markos Saez de Pipaonek 43 urte ditu, eta ordenantza da Iruñeko udaletxean. Hamabost urte darima Navarrerias jota taldean jotzen. Egundak bizi da, baina Lizarrerriko Torralba herrian jaioa da. Egundak saiatzen da akordeoia jotzen, bi edo hiru orduz. Taldearekin, berriz, astean behin edo bitan aritzen da, udan izan ezik, orduan nahikoa baitute emanaldiekin.

Jota talde batean jotzen badu ere, Markosék zortzikoa du maite. Zortzikoa idaztea gustatzen zaio, eta kaleratu duten azken lanean lau berak osatu ditu. Nafarroa du mintzagai beti, eta taldekideei asko gustatzen omen zaizkie kantatzeko. Antzinako kanten konponketak ere egiten ditu; "jotak oso testu laburrak dira; ezin dugu abesti labur bat kantatu moldatu gabe", dio.

Euskaldun berria da, eta oraindik ere ari da euskara ikasten. Ikasturtean egundak joaten da euskaraz trebatzera. Etxean ere bost urteko semearekin saiatzen da euskaraz hitz egiten. Txikitatik izan omen du euskara ikasteko grina, eta duela zazpi urte hasi zen. "Burugorria naizenez, asko kostatzen zait, baina oraindik jarraitzen dut", esan du.



Nafar Kronika

Gontzal Agote

España, oi España!

Halabeharraren ondorioz, aurreko astean nahi baino ordu gehiago eman behar izan nuen telebistaren aurrean eta gau aldeko aukera paregabearen aurrean, nire kirolzaletasun sanoak jaurtitzaila, korrikalari eta jauzilari Sevillako asanblada orokorra ikustera bultzatu ninduen. Honela, pentsatu nuen nire baitarako, kirola egiteko grina ezin izango dut gehiago menperatu eta laster batean, gutxienez, Iruñeko gauero kiroling-zale onenen moduan arituko naiz.

Nire zoritxarrerako parabolikaren aroa ez da etxera aliegatu eta ez nuen beste erremediorik: Televisión Española egindako erretransmisioak irentsi behar izan nituen. Hedabideen arabera, inoiz ez bezalako jarraipena egin behar zuten gure bizilagunek eta halaxe izan da, merezitako urrezko domina eraman behar zuten etxera: forofismo, patriotismo eta itsukeria probetan bederen.

Telebistaren bidez entzun ahal izan dutena sinestuz gero, espainarrak pozarren ibiliko dira egunotan: munduko gizon-emakume azkar, indartsu eta guapoak dituzte eta ez arlo bakar batean, baizik eta guztietan!!! Gauza jakina da inportantea ez dela irabaztea, baizik eta partehartzea; horrexegatik, soinean kamiseta gorria daraman norbait azken tokian aliegatuz gero, berebiziko ahalegina egin duela argi dago eta onenen parean egon dela ez dago ukatzerik. Gertatutakoa ikusiz gero, ordea, errealitatea oso bestelakoa dela konturatuko lirateke alboko biztanleak, baina, antza denez, hauek ere nahiago dute, haien saskietan moduan, itsu segitzea.

Gauzak honela eta mundialak amaituta, ondorioen tenorea aliegatu zait. Zer egin barne-barnean dudari eta nola bideratu ez dakidan kirolzaletasun sutsu honekin? Espainiara izango bantintz, erraza izango nuke: kolore gorria jantzita, ez nuke arazo handiegirik nire izena edozein kirolletan gorai patua ikusteko. Azkena iritsita ere, Marca-ren portada lortu ahalko nuke! Baina nire zoritxarrerako euskalduna naiz, hortaz, gogor hasi beharko dut hanket eragiten. Izan ere, sei Tour irabazi behar izatez da marka makala.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Iruñea:** Hirugarren aldiz, The Vans Warped Tour ekitaldi erraldoia egingen dute zezenplazan, igandean, honako punk-rock musika taldeekin: Pennywise, Suicidal Tendencies, Less Than Jake, The Pietasters, Blink 182, Ice-T, Dickers, Sick Off It All, Beatsteaks, 7 seconds, La rana toro, Good Riddance, Girls Against Boys eta One Minute Silence.

ANTZERKIA

► **Iruñea:** Emakume Protagonistak zikloaren barnean, 'Los enamorados' antzezlan taularatuko dute, larunbata eta igandean, Gaiarre Antzokian, 20.00etan.

► **Zizur Nagusia:** Asteazkenean, irailak 8, Markelife taldeak 'Aló, Europa' antzeztuko du, Erreniega parkean, 22.00etan. Ostegunean, berriaz, Los Galindos taldeak 'Amalgama' antzezlan eskainiko du, Erreniega parkean, 19.00etan.

HITZALDIAK

► **Uztarroze:** Bihar, Uztarrozko Zentroan, Iosu Beaumont preso ohiak sakabanaketaren ondorioei buruz hitz egingen du, 18.30etatik aurrera.

LEHIAKETAK

► **Antsoain:** Narrazio Laburreko XI. Lapurbide Lehiaketa antolatu du Udalak. Gaia librea da eta nahi duena aurkez daiteke, euskarazko zein gaztelaniazko lanekin. Lanak igortzeko epea irailaren 10ean bukatuko da. Informazioa 948-141281 telefonoan.

BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Hauxe da, irailaren batetik, Andrea emakumea-


ren ardurarako zentroaren ordutegia: goizez, 09:00etatik 14:00etara, asteleheneetik ostiralera; arratsalde, 16:00etatik 19:00etara asteleheneetik ostiralera. Ikastaroa irailaren 6an hasiko da eta urriaren 1a arte iraunen du. Informazioa 948-188325 telefonora deituta.

Ikastarook urrats guztiak jorratuko dituzte. Lau aste iraungo dute, eta egunean hiru ordu izanen dira, asteleheneetik ostiralera. Ikastaroa irailaren 6an hasiko da eta urriaren 1a arte iraunen du. Informazioa 948-188325 telefonora deituta.

► **Iruñea:** Eusko Ikaskuntzaren 'Jakitez' ikastaroan izena emateko epea ireki da. Urritik 2000ko ekaina arte egingen da. 255 irakas ordutan hainbat unibertsitateetatik etorriko doktorek emanen dute eskola. Informazioa 948-222105 telefonoan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Na cadea dan de comer; pero teríamos de facer algún mal para irmos á cadea.

Gartzelan jaten ematen diate; baina gaizkia egin behar duk bertara joateko.